

**2009KO URTARILAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Urtarrila

URTEA: Bi mila eta bederatzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: M^a Pilar Vispo Chamosa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2008ko abenduaren 18an egindako ohiko akta onartzeko proposamena.

2008ko abenduaren 18an egindako ohiko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

2.- HIGIEZINA ESKURATZEA. J. M. Iturriotz kalean zegoen adimen-osasun zentroa eskuratzea onartzea.

Alkate jaunak ondorengo hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

I.- 1997ko martxoaren 10eko eskrituraren bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoari J. M. Iturriotz kalean dagoen higiezin laga zitzaion, adimen-osasun zentrorako. Lagapen horretan adierazten zen, Udalak titularitatea berreskuratzeko aukera zuela, helburu horretarako ez bazen erabiltzen.

II.- 2008ko urriaren 17ko idatziaren bitartez, OSAKIDETZAK Udalaren esku jartzen du aipatutako lokala, bertan garatzen zen jarduera, Ezkiaga Etorbideko, 1. tarte-oinean dagoen higiezinera eskualdatu delako.

III.- 2008ko azaroaren 11ko idatziaren bidez Udalak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari eskatu zion aipatutako lokala itzultzeko eta 2009ko urtarrilaren 9ko datarekin, Ogasun eta Administrazio Publiko Kontseilariaren Agindua jaso zen, egindako eskaerari baiezkotzea erantzuna emanez.

IV.- Beharrezkoa da higiezin hori eskuratzeko baimena ematea, eskualdatze eskritura publikoa egiteko,

Horren ondorioz, Hazienda Batzordeak Udalbatza Osoari (aurrekontuan aurreikusita ez dagoen higiezin da), ondorengo erabaki proposamena egiten dio, horrelako araututa dagoelako Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,2o) artikuluan:

Lehenik. J. M. Iturriotz kaletik begiratuta, bigarren oinean eskuinean dagoen eta 5A zenbakia duen higiezin eskuratzea onartzea, Udal Ondasun Inbentarioan jasotzeko.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, erabaki hau gauzatzeko behar diren dokumentuak sinatu ditzan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- ZORREN GERORATZEA ETA ZATITZEA. zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

Arantxa Gibelalde andreak, hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea. Araudi hau ez da aplikagarria izango urbanizazio kuotak eta exekuzio subsidiarioen kasuetan, udal ogasunak aurreratzen dituen diru-kopuruak direnez.

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharrepekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

a. 800 eurotik beherako zorrak:

- Gerorapena:

1. 100 eta 200 euro artean: hilabete 1

2. 201 eta 400 euro artean: 2 hilabete
3. 401 eta 600 euro artean; 3 hilabete
4. 601 eta 800 euro artean: 4 hilabete

- Zatikapena: ez dago aukerarik

b. 800 eurotik gorako zorrak:

- Gerorapena:

- b.1. 800 eta 12.000 euro artean: 6 hilabete.
- b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean: 12 hilabete.
- b.3. 24.001 eta 36.000 euro: 18 hilabete
- b.4. 36.001 eurotik aurrera: 24 hilabete

- Zatikapena:

- b.5. 800 eta 12.000 euro artean: 6 hilekotan
- b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean:12 hilekotan
- b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean:18 hilekotan
- b.8. 36.001 eurotik aurrera:24 hilekotan

- 800 eurotik gorako zorren kasuan, organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gehiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatiko diruaren interesik sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2009ko abenduaren 31n amaituko da. Onartzen diren irizpide hauek ez-ohiko moduan aplikatuko dira ordainketa epea etendako egoeran eta araudi hau indarrean sartzeko unean ebazteko zain dauden, gerorapen eskariak eskatuta dituztelako, zorren kasuan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritziz hauek azaldu dira:

PPko eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PPSOE): “Somos conscientes del problema de financiación que hay actualmente, sobre todo en la construcción, que es precisamente donde nos están pidiendo los mayores aplazamientos. Pensamos que en estos momentos es la Administración la que tiene que tirar del carro, y por ello esto que se nos propone, es adecuado para el período en el que nos encontramos. Debería ser de aplicación general a todos los ciudadanos de Beasain y no quedar circunscrito a unos ámbitos. Lo que si pedimos es que se cumpla fielmente lo acordado, para que luego no haya problemas ni discusiones con otros ámbitos, como anteriormente los ha habido. Estamos de acuerdo y lo vamos a apoyar.”

M^a Pliar Vispo Chamosa sartu da batzarraldira.

EA taldeko ordezkaria ere proposamenaren alde azaldu da.

EAEko ordezkaria: “Gure ustetan neurri hauek herritar guztiei aplikatu beharko litzaizkieke, tasak KPI errearen gainetik onartu zirelako.”

Alkatea jaunak (EAJ): “2009rako zergen igoera KPI erreala baino baxuagoa izan zen, izan ere, guk onartzen dugunean abuztutik abuztura izandako KPI aplikatzen dugu.”

PP: “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se está incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Besterik gabe, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

4.- HITZARMENAK:

a.- 3.1 unitate egikaritzeari buruzko hirigintza-aprobetxamenduarekiko hitzarmena.

Arantxa Gibelalde andreak, hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: AUSARTONDO, S.L.rekin 3.1 E.U.aren (BISTA ALAI) HIRIGINTZAKO APROBETXAMENDUA ORDAINTZEKO HITZARMENA.

AUSARTONDO, S.L.rekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, Hazienda Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. AUSARTONDO, S.L.rekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren xehetasunei onespina ematea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.”

**“HITZARMENA, BEASAINGO 3.1 EGIKARITZA UNITATEAREN
HIRIGINTZAKO APROBETXAMENDUAREN %10a ORDAINTZEA ZEHAZTEKO**

BILDUTA

Batetik: PATXI PLAZAOLA MUGURUZA Beasaingo alkate-lehendakaria, egintza honetarako eskumen nahikoak dituela, 2009ko urtarrilaren 29ko udalbatzak egindako osoko bilkurak hartutako erabakiaren arabera.

Bestetik: JOKIN ERRASTI ARAMBARRI JAUNA, (NAN 15.991.577-E), adinez nagusia, ezkondua eta bizilekua helbide honetan duena: Ugarte Kalea 3-3 Azkoitia.

PARTE HARTU DUTE:

- PATXI PLAZAOLA MUGURUZA JAUNAK, alkate den heinean, Beasaingo Udalaren izenean eta ordezt.
- JOKIN ERRASTI ARAMBARRI JAUNAK, administratzaile solidario den heinean, **“AUSARTONDO, S.L.” Erakundearen** izenean eta ordezt, Azkoitian helbideratua (Julio Urkijo Etorbidea 28). Erakundea denbora mugagaberako osatu da, Azkoitiako Gemma Fernández Alonso notario andreak 2002ko martxoaren 20ean (370 Protokolo zk.) baimendutako eskritura baten bidez. Erakundeak B-20770848 zenbakidun Identifikazio Fiskaleko Zedula du. Halaber, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1.957 liburukian, 120 orrialdean, SS-25.636. orrian. Notario aurrean sinatzeko ahamenak ditu, mugagabe izendatuta duen karguarengatik. Kargua eman zitzaion kapitala zabaltu, helburu soziala aldatu, egoitza soziala lekualdatu, administratzaileak kargutik kendu eta izendatu eta estatutuak partzialki aldatzeko eskrituraren bidez, Gaspar Rodriguez Santos Azpeitiako notarioaren aurrean sinatua, 2003ko urriaren 20an. Eskritura hori Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1.957 liburukian, 120 orrialdean, SS-20636 orrian, 2. inskripzioan.

Parte hartzaileek nahikoa gaitasun legala dute hitzarmen hau sinatzeko, eta, hala,

ADIERAZI DUTE

1º.- Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUren urbanizazioa bultzatzeko helburuz, AUSARTONDO SL sustatzaileak eskuratu duela partzela eraikigarri bakarraren erabateko jabaria. Partzela hori 3.1 EUko Tolosako jabego erregistroan behin betiko onartutako eta inskribatutako birzatiketaren barnean dago.

2º.- 2008ko apirilaren 30ean, Beasaingo Udalaren eta orduko Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko (BISTA-ALAI) jabekideen artean Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko Hitzarmen Batzarra eratzeke hitzarmena sinatu zutela, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legearen 160. artikuluan jasotakoa betez. Hitzarmen horren HIRUGARREN arauaren 2.4 atalean jasotzen da egikaritze unitatearen birzatiketako partzela eraikigarri bakarreko jabeek 466.000 € ordaindu eta aprobetxamenduaren %10a eman behar dutela.

3º.- AUSARTONDO SL-k etxebizitza, garaje eta trasteleku eraikin bat eraikitzeke asmoa duela, Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko partzela eraikigarri bakarrean.

4º.- Herrialdeko higiezin merkatuaren egoera eta krisi ekonomikoa ikusita eta kontutan hartuta unitate honetako kudeaketa baldintzak aurrekari dituztela alboko eraikin berriaren (Martina Maiz) obrako istripuak sortutako hondamena eta ordenazio berriak eskatzen duela egoera normalean eraikiko liratekeen etxebizitzetako asko berraztertzea, AUSARTONDO SL-k BEASAINGO UDALARI proposatu dio 466.000€ diruz ordaintzea, nahitaez eta doan eman beharreko aprobetxamenduaren %10a txanpontzetik ateratakoak. Ordainketa baldintza hauen arabera egingo da:

a) 36 hilabeteko epean, kontratua sinatzen den egunetik hasita, Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUan sustatzen diren finka hauek ordaintzea:

- B LETRAKO ETXEBIZITZA, erdisotoan, bere eranskinak dira: 1. PORTALEKO erdisotoko 2 zenbakidun trastelekua eta 3. sotoko 10. zenbakidun garaje plaza. Balioa: 209.594,10 BEZ kanpo.

- C LETRAKO ETXEBIZITZA, erdisotoan, bere eranskinak dira: 1. PORTALEKO erdisotoko 3 zenbakidun trastelekua eta 3. sotoko 11. zenbakidun garaje plaza. Balioa: 246.638,17 € BEZ kanpo.

b) Eta diferentziala, eskudiruzko ordainketa bidez:

- Gainontzeko eskudiruzko ordainketa:

466.000,00 €

-398.711,96 €

67.288,04 €

Honekin batera atxikita doa finken balorazioaren txosten teknikoa.

5º.- Goiko aurrekarian zehaztutako finkak emanez ordainketa egiteko, baldintza hau beharko du:

, AUSARTONDO SL enpresak Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko partzela eraikigarriaren sustapenetik etorritako etxebizitzaren % 80a ez saltzea hitzarmen hau sinatu eta 36 hilabeteko epean.

Ondorioz:

- Baldin eta AUSARTONDO SLk sustatutako etxebizitzaren %80a edo gehiago saltzen baditu, BEASAINGO UDALARI diruz ordainduko dio irabazi-asmoko aprobetxamenduaren % 10a txanpontzetik geratzen dena .
- AUSARTONDO SLk sustatutako etxebizitzaren %80a edo gehiago saltzen ez baditu, BEASAINGO UDALARI ordainduko dio irabazi-asmoko aprobetxamenduaren % 10a txanpontzetik geratzen dena, hitzarmen honetako

4º a) aurrekarian zehaztutako finkak ordainduz, Udalak ordainetan ezer eman gabe.

Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUn dagoen etxadiaren aurrekariei eta herrialdearen egoera ekonomiko-sozialari erantzunez, dokumentu honetako parte hartzaile guztiek interesa dutenez Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko hirigintzari bideragarritasun osoa emateko eta arrazoi sozialak daudenez, aldeek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, hauek direlarik

KLAUSULAK

Lehena. Xedea.

Hitzarmen honek helburu hauek: ordainketa modua aldatzea, zorraren zati bat atzeratzea eta 2008ko apirilaren 30ean hitzartutako hirigintza hitzarmenean erabakitako hirigintza aprobetxamenduaren % 10a txanpontzeari dagozkion bermeak eratzea (hitzarmen honetako bigarren aurrekarian aipatu bezala). Horrela, bermatu nahi da Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUko hirigintza osorik garatzea.

Bigarrena. Parte hartzaileak.

Hitzarmen honetan parte hartzen dutenek izaera eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.º Beasaingo Udala hirigintza kudeaketaren eskumena duen administrazioa izango da. Horretaz gain, eraikigarria den partzela bakarraren aprobetxamenduaren %10a lortuko du -nahitaez eta doan emango zaio-, eta baldintza horri atxikitako hirigintza eskumen guztiak bere gain hartuko ditu.

2.º AUSARTONDO SL Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUtik lortutako partzela eraikigarri bakarraren erabateko erregistro jabariaren titularra izango da, eta baldintza horri atxikitako hirigintza obligazio eta eskumen guztiak bere gain hartuko ditu.

Hirugarrena. Nahitaez eta doan eman beharreko aprobetxamenduaren %10a ordaintzeko zehaztapena.

3.1 EUa osorik garatzeko, Hitzarmena sinatu duten aldeek beren gain hartu dituzte betebeharrak hauek:

1. BEASAINGO UDALAK betebeharrak hauek hartu ditu:

a) Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 64,5 artikulua jasotakoari jarraiki, eta kasu honetan ezohiko zirkunstantziak daudenez, Udalarik eman beharreko hirigintza aprobetxamenduaren %10etik etorritako zerga atzeratzea 36 hilabetez, irabaziak itzuli beharrik gabe.

b) Onartzea nahitaez eta doan eman beharreko aprobetxamenduaren %10a ordaintzea, finka ordaindu eta eman ez eta baita diruz ere, hitzarmen honetako 4. aurrekarian jasotako proposamenaren eta 5. aurrekarian proposatutako baldintzaren arabera.

c) Dokumentu hau sinatzerakoan, Beasaingo Arau Subsidiarioen EUan nahitaez eta doan eman beharreko aprobetxamenduaren %10a ordaintzea onartzea: 67.288,04 €

d) AUSARTONDO SLk dokumentua sinatzerakoan jasoko duen banku abala jasotzea eta zaintzea, kontratuko obligazioak betetzeko berme gisa. AUSARTONDO SLk bermatutako obligazioak betetzerakoan abala itzuliko zaio.

2. AUSARTONDO SLk obligazio hauek izango ditu:

2.1. 3.1 EUa gauzatzea, planeamendu tresnetan jasotako hirigintza zehaztapenei eta eraikuntza lizentziari jarraiki eta 36 hilabeteko epean gehienez ere, hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera.

2.2. c) Dokumentu hau sinatzerakoan Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUan nahitaez eta doan eman beharreko aprobetxamenduaren %10aren ordainketa onartzea: 67.288,04 €

2.3. Beasaingo Arau Subsidiarioen 3.1 EUan nahitaez eta doan eman beharreko % 10a 36 hilabeteko epean ordaintzea, diruz edo hitzarmenaren 4. aurrekarian aipatutako finken datazio bitartez, hitzarmen honetako 5. aurrekarian jasotako baldintzaren arabera.

Laugarrena. Obligazioak betetzeko bermeak.

Hitzarmen honetako obligazioak beteko direla bermatzeko, AUSARTONDO SLk BEASAINGO UDALARI 398.711,96 €-ko banku abala emango dio. Abal hori solidarioa izango da eta lehenengo errekerimenduan ordaindu beharko da. Abalistak uko egin beharko die eskusio, dibisio eta ordena onurei.

Bosgarrena. Hitzarmena gauzatzea eta hobetzea.

Hitzarmena hobetuko da Beasaingo udalak hitzarmena onartu eta bi aldeek Beasaingo Udalaren idazkariaren aurrean sinatzen dutenean. Udalak egitatearen fede emango du.

Seigarrena. Hitzarmena iraungitzea.

Hitzarmen hau baliogabetuko da, betetzen ez bada edo arrazoi hauetakoren bat ematen bada:

- Dokumentuak jasotako obligazio garrantzitsuren bat ez betetzea.

- Aldeek adostuta.

- Kasuan kasu indarrean dagoen arautegiaren aplikazioarekin bat datozen beste guztiak.

AUSARTONDO SLk hitzarmena betetzen ez badu, BEASAINGO UDALARI gaitasuna emango dio abala denuntziatu eta berrmatutako kopuruak jasotzeko.

Zazpigarrena. Formalizazioa eta jurisdikzioa.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa izango du eta edozein interpretazio, aldaketa edo ebaspen arazo sortzen bada, Udalak berak konponduko du. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera eman diezaiokete eta horiei aurka egiteko aldeek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak aurreikusitako moduan.

Eta ados dauden seinale, aldeek hiru kopia sinatu dituzte ondorio bakarra izan dezaten, hasieran adierazitako egunean eta tokian.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritziz hauek azaldu dira:

PP eta EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Somos conscientes del cambio económico que se ha dado desde que este promotor empezó las gestiones para el desarrollo de ese ámbito, y de las dificultades que ahora puede tener para conseguir financiación. No es lo que nos gustaría, pero si con esto garantizamos que este proyecto salga adelante, hace que demos nuestra conformidad, ya que los vecinos están muy nerviosos.”

EAKo taldea ere proposamenaren alde azaldu da.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

b.- BIZIGUNE programari buruz Eusko Jaurlaritzarekin elkarlan-hitzarmena.

Alkateak proposatuta mahai gainean gelditu da gai hau, xehetasun batzuk ezin daitezkeelako oraindik zehaztu. Hurrengo Udalbatza Osoan tratatuko da.

c.- EUDELEK Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duen hitzarmenari atxikitzea, Gipuzkoan Euskadiko Trenbide-sare berriaren (Euskal Y-aren) proiektua ezagutzera emate, izapidetzea eta burutzea.

Alkate jaunak(EAJ) proposamenaren berri eman baino lehen ondorengo dio:

“Abiadura handiko tren martxan doa eta Gipuzkoan hainbat herritatik pasatzen da. Udal honek betidanik adierazi du abiadura handiko tren interes handikoa dela gure gizartearen garapenerako. EUDELe ere konpromiso hau baieztatu egin du, azken egunetan gertatutakoak gertatuta ere. Abiadura handiko tren pasatzen den udalek hainbat informazio jasotzen dute. Baina batzutan informazio horren aurrean txosten teknikoak edukitzea nahi izaten da. Horregatik EUDELe eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu dute aukera emanez txosten tekniko horiek egiteko kontsultora baten bidez. Informazioa jasotzen duten udalen batek interesa badu dokumentazioaren bati buruz txostena eskatzeko, hitzarmen honen babesean eskatu dezake. EUDELi honen berri emango genioke eta gero txostena egin behar duen enpresa gurekin harremanetan jarriko litzateke, guk adierazteko zeri buruz nahi dugun txostena.”

Jarraian ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: HITri BURUZ EUDELEKIN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Euskadiko Trenbide-Sare berriaren (Euskal Y-aren) proiektua ezagutzera emateko, izapidetzeko eta burutzeko sinatu de elkarlan-hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Euskadiko Trenbide-Sare berriaren (Euskal Y-aren) proiektua ezagutzera emateko, izapidetzeko eta burutzeko EUDEL eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako elkarlan-hitzarmenari atxikitzea.”

Bigarren. Erabaki honen berri EUDELi ematea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

EAEko ordezkaria: “Gu ez gaude AHTrekin ados. Esaten da herriko gehiengoa horren alde dagoela, baina zergatik ez da erreferenduma egiten?. AHTk errepideetan dagoen trafikoa arindu egingo duela entzun ohi da, batez ere garraioari dagokiona. European AHT ez da garraiorako erabiltzen. Bestalde ingurugiroarekiko kaltea ere izugarritzkoa izango da. Azken 20 urteotan garraioan gastatu den dirua horretarako erabiliko da. Ez zaigu beste gauza batzuetarako dirurik geldituko. Esaten den guztia ez da egia.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Egi borobilak ez badira, gezur borobilak ere ez dira. Zilegi da kontrari egotea. Zilegi ez dena da, indarkeria erabiltzea. Aurrekontua igotzen bada, hein handi batean segurtate gastuagatik izango da. Zuk ondo dakizu diru hori nondik datorren. Gehiena, Europatik dator eta huskeria bategatik ez dute dirurik ematen. Argumentu teknikoetan ez naiz sartzen.”

5.- MOZIOA. EAEren mozioa Alkate jaunak aurkeztutakoa, Palestinako herriaren egoerari buruz.

Alkate jaunak, EAEko ordezkariari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

“Garai latz hauetan Palestinako herriari gure elkartasunik beroena adierazten diogu.

2008ko maiatzean Palestinarren hondamendia edo Nakba bezala ezaguna den estatu israelarra sortu zela 60 urte bete ziren. Azken egun hauetan Israelgo Estatuak Palestinako Gaza lurraldean egiten ari den sarraskia azken urteetako basakeriarik handiena izaten ari da.

Gazako bonbardaketa hauteskundeak demokratikoki irabazi zituen Hamas erakundearen zein Gazako herritarren aurkako zigor kolektiboa izaten ari da. Israelgo gobernuak bere hauteskundeak irabazi nahian gerra sortzen ari da eta hori aurrekari arriskutsua izango daiteke.

Munduko estaturik armatuenetarikoa den Israel Palestinako herri zapalduaren aurka burutzen ari den giza krimen honen aurrean, Ameriketako Estatu Batuak, Europar Batasuna edo Nazio Batuak bezalako erakundeek beste aldera begiratu izana lotsagarria eta salatzekoa da. Instituzio hauen ordezkari diren Estatu inperialistak estatu terrorismoaren konplize zuzenak dira, euren interes geoestrategikoen arabera mundua gerratoki bihurtzen ari dira, Afganistan, Irak, Libano eta orain berriro ere Palestina. Zein izango da hurrengoa?

60 urte hauetan Israelgo estatuak denetarik egin du Palestinako herriaren askatasun egarria isiltzeko: lurraldea zatikatu, lurrak, ura eta bestelako ondasunak lapurtu, lotsaren harresia inposatu... Milaka hildako, beste milaka erbesteratu eta 10.000 preso politiko baino gehiago eragin dira baina ala ere Palestinar herria bizirik jarraitzen du.

Munduko gatazka guztietan bezala Palestina eta Israelen arteko gatazkaren konponbidea ere elkarriketa eta negoziazioaren bidez etorriko da, Palestinarrek mila bider aldarrikatu izan duten moduan.

Guzti hori gertatzen ari den bitartean, Israeldar estatuari aurre egiteko tresna moduan, Palestinako 200 elkarte zibilek Israeli boikota bultzatu dute. Boikot hori gure herritik egitea ere tresna baliagarria izan daiteke.

Hau guziagatik, BEASAINGO UDALAK honako hau adierazten du:

- **Udal honek bere elkartasunik beroena adierazten dio Palestinako herriari.**
- **Palestinako 200 elkarte zibilek baino gehiago bultzaturiko Israeli boikot kanpaina babesten dugu.**
- **Israelgo estatuak ekoitzitako zein babestutako kontsumo, kultura, entretenimendu edo bestelako PRODUKTUAK BAZTERTUko ditugu.**
- **Israelgo estatuaren izenean gure lurraldera etortzen diren talde, erakunde, enpresa, kirol talde edo kultura elkarteen PRESENTZIA NON GRATA izango da gure herrian.**
- **Israelgo Estatuarekin gure herriak izan ditzakeen harreman instituzionalak hautsiko ditugu.**
- **Udal honek Israelgo gobernuari gutuna bidaliko dio Gazako erasoak arbuiautz.**
- **Udalak herritarrei urtarrila/otsailean egingo den bilkuran parte hartzeko deia egiten die.**
- **Mozioa hau hedabideei helaraziko zaie baita, bereziki, herritar guztiei ere.**

Une honetan Jon Kortaberria jauna batzarralditik irten egin da.

EAJ, EA eta EB taldekoek ondorengo mozio alternatiboa aurkeztu dute:

A

"HERRI PALESTINARRAK JASANDAKO ERASOAK ETA GAZAKO SARRASKIAREN AURREAN

EAJ, EA eta EB udal taldeek, hurrengo kontramozioa aurkezten dute, udalbatzak eztabaida eta onar dezan:

1.- Israeliek Palestinan eginiko eraso militarrek eragindako bidegabeko ankerkeriak gaitzetsi nahi ditugu, baita Hamasek Israelgo herritarren aurka botatzen dituen koheteak ere, eta bi herri horien arteko gatazka armatua lehenbailehen amaitzea eta su-eten iraunkorra deklaratzeko eskatzen dugu.

2.- Nazioarteko erakundeek adorerik eza eta pasibotasuna salatu nahi dugu, Gazako inbasioa eta bereizi gabeko hilketak gerta daitezkeen uzteagatik, inongo zigorrik jaso gabe nazioarteko zuzenbidea urratuz, nahiz eta zuzenbide hori bete dadin zaintzea den erakunde horien lana.

3.- Nazio Batuen Erakundeari eta Europar Batasunari esku har dezaten eskatzen

diegu, biztanleen sarraskiari amaiera emateko eta laguntza humanitarioa emateko premiazko plan bat ezartzeko lehenbailehen, mugak irekitzeko, okupazio armatuaren laztarekin amaitzeko eta tregua iraunkor bat egon dadin errazteko.

4.-Gertaera odoltsu horiek konponbide iraunkor bat behar dute berehala, israeldarrak eta palestinarrak bakean bizi ahal izan daitezen, Israelentzat muga seguruak jarrita, 1967ko gerra aurreko muga erreferentzia aintzat hartuta, eta Palestinari estatu subirano bat sortzeko eskubidea aitortuta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Voy a contestar a la mocion de ANV. Este no es el lugar idóneo para su presentación, y los que la presentan los menos indicados, ya que no actúan de la misma manera con otras actuaciones terroristas. Cuando condenéis los atentados de ETA y los de HAMAS, que son palestinos, estaréis a la altura democrática de cualquiera de nosotros que las condenamos. Mientras no los condenéis demostráis que apoyáis todos sus asesinatos. ¡Vaya cinismo!.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros como partido también teníamos una contramoción y entre la que aquí se presenta hay diferencia de matices y que tampoco pensamos que tengan que ser lo suficientemente importantes como contraponer una con la otra. Si hay diferencias, por ejemplo, en fechas. Aquí se habla de 1967 como inicio del conflicto y en realidad es desde 1947. No obstante en un buen hacer, vamos a suscribir la contramoción que se presenta.

Mozioa alternatiboa bozketu egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (EAJ, PSE-EE/PSOE, EB)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozio alternatiboa.

6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2008ko abenduaren 15etik 2009ko urtarrilaren 26ra bitartean Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2008ko abenduaren 15etik 2009ko urtarrilaren 26ra bitartean emandako ebazpenak.

PREMIAZKO PUNTUA

Alkateak proposatu du, Enirio Aralar Mankomunitateko basoaren eskubideak banatzeari buruzko puntua tratatzea. Izan ere, udaletxera gai hau iritsi zen gai-zerrenda banatu ondoren,

Bildutakoek onartu egin dute Alkateak proposatutakoa eta horren ondorioz, legeak ezartzen duen quorumarekin erabaki da aipatutako gaia premiazko puntua bezala tratatzea. Horren ondorioz Alkateak proposamenaren berri eman du:

“Se cumple el 600 aniversario de la Mancomunidad de Enirio Aralar que agrupa a 15 municipios. El suelo es común a todos los integrantes y lo que se encuentra dividido en lotes es el vuelo. Históricamente, los municipios con economía saneada han conservado el vuelo. En cambio otros municipios, sobre todo a finales de las guerras carlistas vendieron su parte para obtener ingresos. La división en lotes se realizó el 22 de noviembre de 1821. Si bien la Mancomunidad cuenta con un órgano gestor, es la Diputación quien se ocupa de la gestión de todo lo relacionado con el arbolado. Lo que se pretende es que también el vuelo sea comunitario y para que cada municipio renuncie al derecho que en este sentido le corresponde, lo que procede es indemnizar. Si todos los Ayuntamientos tuviéramos la misma participación, a cada municipio, le correspondería el 6,6%, pero no es así. Concretamente a Beasain, le corresponde una participación del 2,92%, lo que equivale a 11 Ha. Se ha hecho una valoración del arbolado existente, y ha resultado ser de 1.240.000 €. Se ha llegado al siguiente acuerdo: todos los municipios que estamos por debajo de la media, deberíamos de pagar una cantidad a los que se encuentra por encima de ese porcentaje. Esas cantidades la satisfará Diputación a los siguientes municipios:

AMEZKETA	138.509
ABALTZISKETA	87.421
ZALDIBIA	49.724
LAZKAO	36.456
GAINTZA	33.728
ATAUN	19.716

Además el criterio de la Mancomunidad es el de mantener el arbolado existente y no utilizarlo para venta e incrementar el nº de hectáreas de reforestación.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

LIMPIEZA DE FACHADAS

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “en el municipio, creo recordar que en su día aprobamos una ordenanza municipal sobre limpieza de fachadas y pancartas y EUDEL también tiene un acuerdo con los municipios pertenecientes a la Asociación, para el mantenimiento de las fachadas. En Beasain lleva mucho tiempo sin que la ordenanza y el acuerdo de EUDEL se cumplan. Pensamos que es la época que peor se está manteniendo el pueblo por parte de servicios, y que el deterioro visual es cada vez más grave. Cuando se aprobaron los presupuestos, había una partida de subvención para limpieza, y yo comenté que esperaba que no sean los ciudadanos los que tengan que limpiar, sino que es el Ayuntamiento el que está obligado a mantener limpio el pueblo. Queríamos saber por qué no se ejecuta, cuando se tiene la intención de matener limpio el pueblo y de hacer cumplir las ordenanzas que el propio Ayuntamiento ha aprobado.”

FONDO ESTATAL DE INVERSIÓN LOCAL

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Sabemos que hay un fondo estatal de inversión local procedente de Madrid y que el Ayuntamiento de Beasain ha presentado unos proyectos. Queremos saber si se ha llegado a tiempo, si se han aceptado y si se puede hacer público en el pleno cuales son las solicitudes presentadas y aceptadas.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Contestando a la primera pregunta decir que es verdad que a veces el estado de las fachadas y la colocación de pancartas deslucen el ornato municipal. Tenemos una ordenanza y un compromiso de quitar pancartas y papeles en fachadas los lunes y los jueves. Quitamos la mayoría, pero algunas se nos escapan porque tenemos indefinición en cuanto a las fechas. Respecto de la limpieza de fachadas se está estudiando en servicios, y antes de dos mese se tomará una determinación. Se tendrá que definir una actuación para la limpieza de fachadas públicas y privadas.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Se han presentado a tiempo solicitudes para 12 proyectos y todos han sido validados. Cuando estén aprobados inmediatamente informaremos.”

HOTEL RESTAURANTE DOLAREA O PALACIO DE CONGRESOS DEL GOIERRI.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Al grupo socialista y a la mayoría de los ciudadanos de Beasain, nos gustaría saber en qué situación se encuentra el hotel restaurante Dolarea o según quien haga la pregunta el palacio de congresos del Goierri.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Nunca se habla del palacio de congresos del Goierri. Tal vez en Igartza, pero no en Dolarea. Lo que hace dos años podía valer como garantía, en estos momentos no ocurre lo mismo. Estamos teniendo reuniones constantes con la KUTXA, que es quien va a intervenir y los promotores se están ejecutando a los parametros que se les están marcando. Esperemos que antes del 15 de febrero tengan la financiación. Si bien los estudios muestran que la ocupación en Goierri es del 85%, la sección de riesgos dice que es del 60%. Eso supone mucho ajuste. La realidad es que en estos momentos hay problemas para la financiación. El Ayuntamiento está interviniendo indirectamente, a través del coordinador.”

AHT

EAEko ordezkariak galdetu du ea zergatik 2008ko proiektua orain jarri den jendaurrean eta zein den planteamendua obra horretan sortzen diren hondakinei buruz.

Alkatea jaunak (EAJ): “Egikaritze proiektuak guk jaso ditugunean jendaurrean jarri ditugu. Europako aldizkari ofizialean atzo argitaratu zen San Marin baselizatik Mariarats-eraino doazen obrei buruzko lizitazioa. Guk dugun informazioa zabaldu egiten dugu.”

Hondakinak. Muruazpi inguruan zabortege bat aurreikusita zegoen, baina guk bi baldintza jarri genituen, hau da, bat kamioiak herritik ez pasatzea eta bestea, ahal den gutxiena hor zaborrak botatzea. Berez, ez da zaborra. Desberdina da zaborra eta hondakina. Zaborra botatzea kaltegarria da, baina hondakina inerte da eta betegarri moduan erabiltzen da. Dena dela paraleloki, beste zabortege batzuk ari dira moldatzen, baina horrek bere denbora darama.”

Bukatzeko Alkateak udal zerbitzuei eskerrak eman die, aste buruan izandako haize bolaren aurrean egin duten lanagatik.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.